

2024KO MAIATZAREN 20KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko maiatzaren 20an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Joxemai Oramazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Bilkurari hasiera eman aurretik, Alkateak azaldu du deialdiko hirugarren puntua, "Beneditarren Fundazioari 2024 urteko ekarpena" gai hain zuzen ere, akatsez sartu dela gai zerrendan. Izan ere, gai hau aldeztu aurretik jorratu zen beste Gobernu Batzorde batean.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2024ko maiatzaren 6an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 37 zenbakidun zerrenda, EHUN ETA HIRUROGEITA BAT MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAHIRU euro ETA BERROGEITA HAMAR zentimokoa (161.893,50 €), bere espedienteetan dagoena, onartzea erabaki da.

III.- BENEDITARREN FUNDAZIOARI 2024 URTEKO EKARPENA.-

Gai hau ez da jorratu, akatsez sartu delako gai zerrendan.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 19-11-04 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea, astean 19 orduetik 30 ordura, onuradunaren osasun egoera okertu delako. Erabiltzailearen ekarpena % 15ekoa da.
- 21-11-01 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea astean 2 orduetik 4 ordura, apirilaren 12tik aurrera. Erabiltzailearen ekarpena % 100ekoa da.
- 22-11-02 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea, astean 10 orduetik 24 ordura, apirilaren 22tik aurrera, onuradunaren osasun egoera okertu delako. Erabiltzailearen ekarpena % 2koa da.
- 23-11-13 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea, astean 20 orduetik 22 ordura, apirilaren 12tik aurrera. Erabiltzailearen ekarpena % 2koa da.
- 24-11-04 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea astean 2 orduz etxeko garbiketari laguntzeko, apirilaren 16tik aurrera. Erabiltzailearen ekarpena % 100ekoa da.
- 24-11-05 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea astean 10 orduz etxeko garbiketari laguntzeko, apirilaren 17tik aurrera. Erabiltzailearen ekarpena % 100ekoa da.
- 24-11-06 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea astean 2 orduz etxeko garbiketari laguntzeko, apirilaren 23tik aurrera. Erabiltzailearen ekarpena % 100ekoa da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 23-01-017 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 120 €-ko dirulaguntza ematea apiriletik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 24-01-006 zenbakidun esped.: lehen mailako premietarako 150 €-ko dirulaguntza ematea maiatzean. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 24-01-007 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 85,5 €-ko dirulaguntza ematea apiriletik abendura. Eman daitekeenaren % 57 da.
- 24-01-008 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 150 €-ko dirulaguntza ematea apiriletik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 250 €-ko dirulaguntza ematea apiriletik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.

Joxemiel Barandiaran Udal kiroldegikobazkidetza eta jarduerengatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntza ematea.-

- 24-23-01 zenbakidun esped.: Joxemiel Barandiaran Udal kiroldegiko hiruhileko bazkidetza bonuaren tasa ordaintzeko 89,55 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 24-23-04 zenbakidun esped.: Joxemiel Barandiaran Udal kiroldegiko urteko pentsiodun bazkidetza familiarra ordaintzeko 89,55 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.

Kultura eta denbora libreko ikastaroengatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntzak ematea.-

- 24-23-02 zenbakidun esped.: martxoko marrazketa ikastaroa ordaintzeko 28 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 24-23-03 zenbakidun esped.: martxoko josteko ikastaroa ordaintzeko 36 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.

V.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

San Benito ikastetxeko ikasleei.-

San Benito ikastetxeko DBH 4ko ikasleei, Lazkaoko jaietan umeen eguneko bazkariaren antolaketa lanetan laguntza emateagatik 330 €-ko dirulaguntza ematea.

Antzar konpartsari.-

2024ko apirilaren 22ko Tokiko Gobernu Batzordean, Antzar konpartsari Lazkaoko jaietan erraldoi eta buruhandien bilkura antolatzeagatik 4.000 €-ko dirulaguntza ematea onartu zen. Lehen 2.500 €-ko zatia momentu horretan ordaintzea onartu zen.

Orain, gainontzeko zatia, hau da, 1.500 € ordaintzea onartu da.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.10.334.00 partidatik egingo da.

Oin Arin dantza taldeari.-

2024ko San Prudentzio jaietan jarduera ezberdinak burutzeagatik honako dirulaguntza hauek ematea onartu da:

- Gazte topaketa 655,15 €
- Dantza suelto txapelketa 1.693,81 €

GUZTIRA 2.348,96 €

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.01.334.00 partidatik egingo da.

Danak Batea elkarteari.-

2024ko San Prudentzio jaietan toka txapelketa antolatzeagatik 660 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.11.334.00 partidatik egingo da.

Mikel Insausti Garmendiari.-

2024ko San Prudentzio jaietan pelota txapelketa antolatzeagatik 668 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.03.338.00 partidatik egingo da.

Lazkaoko Musika Bandari.-

2024ko San Prudentzio jaietan Lazkaoko Bandaren kontzertua antolatzeagatik 1.700 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.07.334.00 partidatik egingo da.

Lazkaoko Txirringularitza elkarteari.-

2024ko San Prudentzio jaietan, apirilaren 27an Lazkaoko LXXXI. proba eta maiatzaren 4an XLVIII. Lazkaomendiko proba antolatzeagatik 7.287 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.01.341.00 partidatik egingo da.

Maizpi elkarteari.-

2024ko San Prudentzio jaietan, apirilaren 29an, sardina jana prestatzeagatik 2.194,75 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.12.334.00 partidatik egingo da.

Esparru elkarteari.-

2024ko San Prudentzio jaietan bakailao lehiaketako bazkaria prestatzeagatik 791,10 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.14.334.00 partidatik egingo da.

VI.- KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kirol eta gazterriko zinegotziak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrek, aho batez, honakoa erabaki du: aurrekontuetan kirol talde desberdinek urteko ohiko funtzionamendu eta egitasmoak diruz laguntzeko ondorengo dirulaguntzak onartzea, eta hauen lehen zatia, hau da, %60, momentu honetan ematea.

Ondorengoa da onartu diren dirulaguntzen zerrenda:

Kirol elkarte	Laguntza osoa	Lehen ordainketa (%60)
Lazkao Kirol Elkartea	16.000 €	9.600 €
Goierrri Gorri Kirol Kluba	5.300 €	3.180 €
Lazkao Antzar Pilota Kirol Elkartea	2.000 €	1.200 €
Antzar Korrikalariak Kirol Kluba	11.250 €	6.750 €
Amalur Mendi Elkartea	2.500 €	1.500 €
Txindoki Atletismo Taldea	1.700 €	1.020 €
Ordizia Igeriketa Taldea	1.200 €	720 €
ORLOIJ Txirrindularitza Bultzatuz Elkartea	800 €	480 €
Ikullu Razing	5.000 €	3.000 €

VII.- EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024ko maiatzean mar-txan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkata-rik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien mer-katariei lehen ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	3.510 €
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	2.135 €
LIERNI FDEZ. CARRERO (NARE)	800 €
NAGORE COLORADO... (MANAKO)	1.680 €
NAGORE COLORADO... (MANAKO)	575 €
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	550 €
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	650 €
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	150 €
GERRIKO SL	385 €
NEKANE GARMENDIA...CB (GARAIZ)	4.400 €
GARAIZ ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	400 €
ALBERTO SUKIA (SUKIA HARATEGIA)	600 €
JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA)	360 €
MARIANA OSTERTAG (MAMUFO)	125 €
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	5.130 €
MILA MTNEZ. (DIGITAL IZAR)	45 €
AMAIA SORAZU (EKILORE)	255 €
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	1.320 €
XABIER BARANDIARAN (OSATU)	1.045 €
LEIRE VELASCO SEISDEDOS (LEIRE ESKULA)	580 €
GUZTIRA	24.695 €

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) galdetu du ea zein den egoera bezperan urak sortutako kalteak direla eta.

Alkateak egoeraren berri eman du.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.